



Arrantza iraunkorra

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.

HELBURUA

- Arrantza-industria desberdinen ezaugarri batzuetatik abiatuz beren iraunkortasuna aztertzea.

HURRENGO TAULAN bi arrantza-industria konparatzen dira.

ARRANTZA-INDUSTRIA MOTAK

	INDUSTRIALA	ARTESANALA
Arrantzale kopurua	500.000 inguru	12.000.000 inguru
Urteko arrain-harrapaketa giza kontsumorako	29.000.000 tona inguru	24.000.000 tona inguru
Enplegu bakoitzeko kapital kostua	30.000 -300.000 dolar	250-2.500 dolar
Arrain-orea, arrain olioia eta abar egiteko arrain-harrapaketa	22.000.000 tona inguru	Praktikoki ezerrez
Urteko petrolio kontsumoa	14-19 milioi tona	1,4-1,9 milioi tona
Arrain-harrapaketa erabilitako erregai tona bakoitzeko	2-5 tona	10-20 tona
Arrainuntzietan inbertituriko milioi dolar bakoitzeko arrantzale kopurua	5-30	500-4.000

Datu hauek World Fish Centre-ren NAGA aldizkaritik hartuta.

Aztertu taulan dagoen informazioa eta saiatu ondorengo galderak erantzuten.

- Zertan da hobe arrantza mota bakoitza?
- Zein da iraunkorragoa? Zergatik (iraunkortasunaren hiru dimentsioen arabera: ekonomikoa, soziala eta ingurumenari dagokiona)?



Arrantza artesanalaren untziak.



Arrantza industrialarako untzia.